



# ORRI INFORMATIBOA



Igeldoko Herri Kontseilua - Itsas Aurre Kultur Etxea. Herriko plaza Z/G. IGELDO  
Tfinoa.: 943-31 30 30 e-posta: [infogeldo@euskalerrria.org](mailto:infogeldo@euskalerrria.org)

## Herriko festak eta aldarrikapenak nagusi, datozen egunetan

San Pedro jaiak hastear dira eta herriko festei begira dabilta igeldotar gehienak azken egunotan. Orri Informatibo honetan egitaraua ez dugu bildu, dagoeneko banatu delako etxez etxe, baina festekin lotutako hainbat ekintzen berri ematen dizugu: oilasko biltzaileen kalejiran izango diren aldaketak, Mendizorrotz Guraso

Elkarteak aurten ere azoka txikia antolatu duela, baita Herrira Mugimenduak preso eta iheslarien aldeko elkartasun tonbola...

Horrez gain, datozen egunetan aldarrikapenerako tartea ere izango da; hain zuzen, Igeldoren desanexioaren alde, eta Itsas Aurre elkarteak antolatu dituen ekintzak ere bildu

ditugu ale honetan.

Bestalde, aurreko bi hilabeteetan herrian izan diren gertaeren kronikatxoak irakurri ditzakezu. Eta datozen egunetan izango diren deialdi eta ekimenei buruzko informazioa ere baduzu.

Ondo pasa festak!!!



**Plazak Bete ekimenarekin bat, kartzelak hustutzeko.** Maiatzaren 19an, Plazak Bete lelopean, ekimen nazionala deitu zuen Herrira Mugimenduak euskal preso politikoen eta iheslarien eskubideen alde eta hainbat igeldotarrekin bat egin zuten deialdiarekin. Horrez gain, egun berean, bideo bat egin zuten eta 140 pertonek hartu zuten parte. Ea festetan ikusteko aukera dugun!

Bestalde, herriko festetan ere gogoan izango dituzte preso eta iheslariak eta aurreko urteetan bezala, **Elkartasun tonbola** antolatu du Igeldoko Herrirak. Materiala biltzen ariko dira, San Juan bezperako afariaren aurretik. Herritarrei dei egiten diete materiala eramateko: mozorrotzeko arropak, jolasak, traste zaharrak... edozerk balio du.

# Eguraldiak lagundu ez arren, giro ederra Udaberri Festan

Maiatzeko hirugarren astean, San Isidro egunaren bueltan, Udaberri Festa ospatu zen Igeldon. San Isidro eguna asteartez izan da aurten, baina horrek ez du askorik eragin. Dema eta afaria egin ziren eta herritar ugarik hartu zuen parte. Afarian, denera, 75 lagun elkartu ziren. Calongen afaldu zuten eta gustora geratu ziren denak. Antolatzaileek ere oso balorazio positiboa egin dute.

Maiatzaren 19an jarraitu zuen Udaberri Festak eta egun hartan eguraldiak ez zuela askorik lagundu esan behar. Umeen ginkana eta asto karrera suspenditu egin behar izan ziren. Dena dela, umeen bazkaria eta tailerrak egin ziren eta ondorengo afariak eta erromeriak sekulako giroa jarri zuten. Antolatzailak pozik daude erantzunarekin.



Andoni eta Joxi txapeldunak, Mikel eta Antxon bigarrenak eta Xabi eta Txetxu hirugarrenak.

## Igeldoarren gutxiatik ez dituzte lortu Urrezko Lapak

Lapa Sariko aurtengo txapeldunak Andoni eta Joxi izan dira, 698 punturekin. Bigarrenak igeldoarrenak izan dira: Antxon eta Mikel. Azken unera arte serio aritu ziren bi igeldoarrenak, baina azkenean 2. postuarekin konformatu behar. Lau puntuko alde besterik ez zieten atera txapeldunek. Hirugarren eta laugarrenak, Xabi eta Txetxu (481 punturekin) eta Miguel eta Txiki (423 punturekin) izan dira.

Aurtengo Lapa Saria, 35. edizioa,

beti bezalako arrakastatsua izan da, baina mus txapelketa osoari dagokionean, iaz baino jende gutxiagok hartu duela parte nabarmendu dute antolatzaileek. Eta parte hartzaile guztiei eskerrak eman nahi dizkiete ostiraletan mus partida jokatzera azaltzeagatik.

Bestalde, 2012ko mus txapelketako diru kontuak honakoak izan dira: Sarrerak: 6491,20 euro; irteerak: 2544,70 euro; eta irabaziak: 3946,50 euro.

## Gazteak gustora, urteurren festan adin ezberdinetako herritarrak bildu eta helburua beteta

Igeldoko Gaztiak taldearen urteurren festa ospatu zen apirilaren 28an eta herriko gazteak oso pozik daude herritarrek emandako erantzunarekin. Festa osoa herritar guztiei zuzendua izan bazen ere, batez ere paella lehiaketarekin ahalegindu ziren adin ezberdinetako herritarrengana iristen eta helburua

lortu zutela dudarik ez da. Adin eta talde ezberdinetako herritarrak elkartu eta 10 paella aurkeztu ziren. Eskurik onena gurasoek dutela erakutsi zuten.

Eguraldi kaxkarra egin arren, giro ederra izan zen egun osoan eta gauean ere herritar ugari animatu zen lokaleko kontzertuetara.



Adin tarte ezberdinetako herritar ugarik hartu zuten parte paella lehiaketan.



Ieltxoren argazki lehiaketako sari banaketa ere egin zen eguerdian eta Urko Aizpurua izan zen irabazlea.

# Tellabide eta Agirresarobe baserriz baserri elkarrizketak egiten, liburu bat osatzeko

Uztailaren 7an, herrilanean, Igeldon dagoen elurzuloa garbitzeko deialdia egin du Herri Kontseiluak.

Igeldoko Herri Kontseiluak hainbat kontu ditu eskuartean, baina lehenik eta behin eskerrak eman nahi dizkie herritarrei Herri Batzarrean parte hartzeagatik. Eta jakinarazi du, Herri Batzarrera joan ezin izan zutenek eskuragarri dutela batzarreko akta, kultur etxeko bulegoan.

Horrez gain, azaldu dute, Josu Tellabide eta Asier Agirresarobe baserriz baserri ibiliko direla elkarrizketak egiten. “Elkarrizketa hauen helburua da, Igeldoko baserri eta baserritarrei buruzko liburu bat osatzea. Beraz, Herri Kontseilutik parte hartzera gonbi-

datzen zaituztegu”, gaineratu dute.

Uztailaren 7an, berriz, Igeldon dagoen elurzuloa garbitzeko asmoa dago, herrilanean, eta parte hartzeko dei egiten diete herritarrei.

Bestalde, gogorazi dute hilabete-ko lehenengo larunbatetan birziklape-neko kamioia etortzen dela Igeldora. Aurreko bi hilabeteetan Mendizorrotz jatetxearen ondoan jarri dute, baina hemendik aurrera Calonge ondoko parkinean egongo da.

Herri Kontseiluak festa zoriontsuak opa dizkie herritar guztiei.

## Ieltxok antolatutako ikastaroetan aurrematrikulatzeko epea, zabalik

Aurrematrikula ekainaren 30a baino lehen egin behar da. Irailean zabalduko da matrikulatzeko epea.

Ieltxo kultur elkarteak 2012-2013 ikasturterako hainbat ikastaro antolatu ditu eta aurrematrikula egiteko epea zabalik dago dagoeneko. Interesa dutenek, izena, ekainaren 30a baino lehen eman behar dute emaila bidaliz, [ieltxokulturrelkartea@ymail.com](mailto:ieltxokulturrelkartea@ymail.com) edo kultur etxeko buzoian bete beharreko papera utziz (Orri Informatiboarekin banatu den orriari azaltzen dira ikastaroak, bete beharreko datuekin).

Irailean zabalduko da matrikulatzeko epea eta ikastaroei buruzko informazio gehiago abuztuan jaso ahal izango da.

### Matrikulatzeko, 60 euro

Ieltxok azaldu duenez, matrikulatzeko 60 euro ordaindu beharko dira. Diru kantitate hori kursoaren azken hilabete-  
etako kuotetatik deskontatuko da. Ikasturtean zehar, helbiderapen sistema erabiliko da kuotak kobratzeko. Beraz, kontu korrante zenbakia matrikularekin

batera eramateko eskatu dute.

Ikastaroaren lehen egunean ikasle bakoitzak egutegia eta ikastaroaren plangintza jasoko ditu.

### Ikasturte serioa eta konpromisoa duena

Kultur elkarteak nabarmendu du euren helburu nagusia Igeldori eta herritarrei kultur eta aisi ekintzak eskaintzea dela eta aurtengo ikasturtean aurrera eramán dituzten ekintzak bezala, datorren kurtsuan ere programa serioa eta konpromisoa duena landuko dute. Horrez gain, ikasketa helburuak sartuko dituzte, hiru-hileko ebaluazio sistema ezarriko dute... eta ikasturte amaieran, hau da ekainean, ikasturte amaierako jaialdia antolatuko dute denek batera disfrutatzeko eta bide batez ikasitakoa erakusteko.

Bestalde, ikastaro motzak eskaintzeko asmoa dute eta proposamenen berri emateko eskatu dute.

## Oilasko biltzaileen kalejiran, aldaketak

Gure aurrekoen herentzietako bat izan da Oilasko Jokoaren jaiak. Denborak aldaketak dakartza berarekin eta animalien erabilera jai giroan erabiltzearen aurkako iritzia indartu egin da herritarren artean. Jaiak ulertzeko era, gizarte bera bezalaxe aldatu egin da.

Bestalde, agintarien presioa ere handitzen joan da azken urteetan, isunak tarteko, herriko jaiak eta Oilasko biltzaileen tradizioa arriskuan jarri arte.

Herriko talde desberdinak elkartu eta iritzi kontrajarriak mahai gainean jarrita, denon elkarlanean, Oilasko biltzaileen kalejiran aldaketak izango ditugu aurtengoan.

Lan talde honen helburu nagusia jaiak eta herriko tradizioak mantentzea izan da. Beraz, aurtengo oilaskoei ez zaie leporik moztuko herriko plazan.

OILASKO BILTZAILEEN TALDEA  
HERRI KONTSEILUA  
TTONTTORRO JAI BATZORDEA

## Igeldoko eskola, aktiboa

Ikusiko zenituzten gure umeak gora eta behera, aurrera eta atzera. Igeldo ezagutzen ari dira, eta batetik bestera dabilta, hau eta hura ikusiz, hau eta hura ukituz, honi eta hari galdetuz.

Baina gainera, eskola txiki bat direnez, Eskola Txikien mugimenduak antolatzen dituen ekintzetan hartzen dute parte, eta horrela, ikusiko dituzue Eskola Txikien gainean egin den dokumentalean eta [www.eskolatxikiak.org](http://www.eskolatxikiak.org) web gunean. Izan ere, Onddi mendira igo ziren haien gurasoekin, Eskola Txikien Festa egiten zela 25 urte ospatzeko, Gipuzkoako gainerako eskola txikiak ikasle-irakasle-herrikideek egin zuten gisan. Eta ekainaren 1ean Larraulera joan ziren festa handia ospatzera. Eta horien guttien berri ematen da web gunean.

Beraz, gure umeak ikusten badituzue gora eta behera, aurrera eta atzera Igeldo ezagutzen, lokatza ukitzen eta loreak usaintzen, pozik jarri, ikasten ari dira eta: gure etorkizuna formatzen ari da.

ESKOLA TXIKIAK TALDEA,  
MENDIZORROTZ GE



Igeldoren desanexioaren alde, argazki herrikoa atera zen ekainaren 10ean plazan. Bertan, belaunaldi ezberdinetako 120 herritar inguru elkartu ziren.

### ITSAS AURRE ELKARTEA:

# "Orain da garaia apustua egiteko"

Ekainaren 7an Itsas Aurre elkarteak Diputazioarekin bildu zen eta Igeldoren desanexioaren gaia berriro aztertzeko prest azaldu zen. Elkarreak egungo unearen garrantzia azpimarratu nahi die igeldotar guztiei.

Maiatzaren 31n egindako herri batzarrean, Itsas Aurre elkarteak Diputazioari bilera bat eskatzeko asmoa adierazi zuen, kontuan izanda, azken hauteskundearen ondorioz gobernu aldaketa egon dela. Ekainaren 7an elkartu zen Itsas Aurre elkarteak Diputazioarekin eta bertan Igeldoko desanexioaren gaia berriro aztertzeko eskatu zion egun diputazioan dagoen gobernuari. Diputazioak jarrera ona azaldu zuen eta gaia aztertzeko prest azaldu zen.

Bestalde Itsas Aurre elkarteak egungo unearen garrantzia azpimarratu nahi die igeldotar guztiei: "Orain da garaia apustua egiteko". Hori horrela, azken aldirian antolatutako ekintzetan parte hartu dutenei eskerrak eman nahi dizkie eta aurrerantzean izango diren parte hartzeko deia zabaldu nahi die igeldotar guztiei. Horrez gain, etxeetako balkoietan banderola berriak eta kotxeetan pegatinak jartzera animatu nahi ditu herritar guztiak.

#### **ONDORENGO EKINTZAK:**

##### **EKAINAK 23, SAN JUAN BEZPERA:**

**19:00etan**, Kalejira berdea herria alaitzeko.

**Afalostean**, San Juan suaren inguruan Igeldotarron nahia aldarrikatu. "Asmo zaharrak sutara eta berriak desio; IGELDO 89. UDALERRIA!"

##### **EKAINAK 30, HERRIAREN EGUNA:**

**13:00etan**, Topa herrikoa Igeldo Udalerriaren alde!

Ondorenean herri bazkarian, gazta joku!

##### **UZTAILAK 1, IGANDEA:**

**13:00etan**, Patata tortilla txapelketa Itsas Aurre elkarteak lagunduta.

\*\*\* JARRI BANDEROLA BERRIAK ZUEN ETXEKO BALKOJETAN ETA JANTZI KAMIXETA BERDEAK HERRIKO JAIETAN!!!



**Igeldoko  
Herri  
Kontseilua**

Laguntzailea:

